

# ADARRA

## Pedagogi Erakundea

Mitxel Labegerie, 2-3º Dpto3  
48005 - Bilbao

944153795 [www.adarra.org](http://www.adarra.org)



## PARTAIDETZARI BURUZKO JARDUNALDIEN ONDORIOAK

(Bilbon egindakoak. 2008ko  
martxoaren 5a eta 6a)

### PARTE HARTZEA

Gero eta arago dago eskolak, berak bakarrik, ezin duela dituen xedeak bete. Egungo gizartea informazioarena da eta beharrezkoa da komunitatearekin, hots, familia eta gizarte zein hezkuntzan diren bestelako eragileekin, lan egitea ikasle guztiek eskola-arrakasta lor dezaten. Irakasleok, ikasleek eta familia kideok inplikatu behar dugu zentzua eraiki eta ingurua aldatzeko, horrela, ikastea gerta dadin. Hau guztia soilik lor liteke guztiok xedeak partitzen baditugu. Aurrera egiteko biderik onenak inplikaturik dauden eragile guztiek parte hartzen dutenean irekitzen dira, komunitate osoak maila berean mintzatzen denean.

Gizarte demokratiko eta parte-hartzailea nahi badugu, eskolak ere halakoxea izan beharko du. Ikastetxeetan asko aurreratu bada ere kudeaketa demokratiko eta parte-hartzaileari dagokionez, egunetik egunera egiazta dezakegu aldaketok ez direla beti eskolara heltzen.

Uste dugu serio planteatu behar direla eskoletako parte-hartzea eta kudeaketa demokratikoa. Badira mugatzen gaituzten egitura ofizialak eta familia zein gizarte eragileei eskoletako atak irekitzeko beldur historikoak eta hori guztia gaintitu beharra dago.

Sarritan esan ohi dugu familiak ez direla seme-alaben hezkuntza prozesuan inplikatzeko; alabaina, oztopatu egiten dugu familien parte-hartze eraginkorra eskolako elkarbizitzarako garrantzitsuak diren erabakiak hartzean. Gehienetan, familiaren parte-hartzea Eskola Kontseiluetako ordezkarietara mugatzen da, eta kasurik onenean, zenbait jardueretan parte hartzera (jaiak, ...), hortaz, familiek ez dute ikastetxeko erabaki eta eztabaida garrantzitsuetan modu eraginkor batean parte hartzeko aukerarik

ikusten, euren esanak kontuan hartuak izan eta horrela eskolan benetako aldaketak gertatzea lor dadin.

## Parte-hartze prozesuak

Parte-hartzea nola sustatu asmatzeko, garrantzitsua da *parte-hartzea* zer den jakitea, "jarduera libre (edo boluntarioa), nahita eta era antolatuan, bizitza publikoan den edozein esparrutako erabakietan eragin nahi duena (gure kasuan eskolan)".

Badakigu jendea parte hartzera anima dadin ezinbestekoa dela erabakitzeko aukera izatea, gauzak aldatzeko boterea izatea, eta horrek pertsonenganako konfiantza izan eta "boterea" partitu beharra dakar.

- Parte-hartzea sustatzeko honako hauek ziurtatzeari beharrezko deritzogu:
- Alde guztien arteko komunikazioa eta norabide guztietan izateari.
- Azaltzen dituenaren boterean baino, garrantzia argudioen sendotasunean erakusten duten hausnarketa gunezi; askatasun osoz hitz egin eta planteaturiko gaien konponbiderik onenak komunean pentsatzeko aukera ematen duten gunezi.
- Gauzatuko diren erabakiak hartu ahal izateari.



Hortaz, pertsonen arteko harremanak zaindu behar dira eta guztien arteko elkarreragina sustatu: parte-hartzea ezin da inposatu eta gainera parte hartuz ikasten da. Parte-hartzeaz ari garenean ezin dugu soilik emaitzetan pentsatu: seguruenik parte-hartze prozesu ona izango da emaitzarik onena.

Prozesu hauek zaintzea funtsezkoa da, hauek baitira aukerak ematen dituztenak. Horretarako honakoak egin behar:

- elkarrizketa berdintasun mailan ziurtatu,
- diren jarduera-aukerak ezagutu,
- jardueren xedea ezagutu,
- gure ekarpenak zertan diren jakin,
- erabakitzeko aukera.

Dena den, inplikazio maila ezberdinak daude, bai eta parte-hartzean ere. Ezin da aurretik zehaztutako parte-hartze estilorik inposatu, eta gauzak gero eta konplexuagoak diren gizarte honetan, parte hartzeko era ezberdinen aurrean irekiak eta irudimentsuak izan beharko dugu.

## Parte-hartzea eskolan

Eskolak ahalbidetu behar du berdintasun mailan inplikaturiko eragile guztien parte-hartzea bultzatu ahal izateko praktiken indartzea, ikastetxeetan ezarrita dagoen botere zerrrendaren aldaketa bultzatzea eta hauen inplikaziorako beharrezkoak diren baldintzak sustatzea.

Elkarrizketarako komunitate guneak sortu behar dira, eztabaida, hausnarketarakoak. Hain zuzen ere, irakasleek, ikasleek eta etxekoek ikastetxeak gune demokratiko bihurtzeko behar denari dagokionean, erabakiak hartu ahal izateko bide diren guneak. Horrela, hezkuntza komunitateko kide guztiok inplikaturik egon ahal izango gara:

- ikastetxeko funtzionamenduaren hobekuntzan
- ikasleen ikaste prozesuaren hobekuntzan
- jardueren antolaketan (ikasketak sustatzekoak, jaiak...)
- proiektuen garapenean
- ...

Komunitate osoaren parte-hartzea lortzeko jakin behar da sektore guztiek ez dituztela parte hartzeko aukera berberak eta orekatu egin beharko direla:

- Ikasleen parte-hartzea sustatuta ikasgelako asanbladak eginez, ordezkariak hautatuz eta azken hauen bileren funtzionamenduaz.
- Etxekoak parte-hartzera pertsonalki animatuta behar ditugula azpimarratuz.
- Gure ikastetxeekin lotura duten elkarteak kontuan hartuta.

Eremu sinpleagoetan parte hartzeko formulak ere bilatu behar dira: "kexen" bideratzea, desadostasunak, beti ere ziurtatuta jende oro entzungo dela eta animatuko dela konponbideak proposatzera. Eskaera guztiak erantzuteak jendea parte hartzera animatzen du ikusten delako planteatutakoa jaso, baloratu eta kontuan hartzen dela. Ikastetxe bakoitzak erabaki beharko du zein bide hautatzen duen aipatutakoa lortzeko.



## Parte-hartzea eskolan egia bihurtu; nola?

Hau guztia lortzeko berariazko denbora eman beharko dugu ikastetxearen antolaketan eta erabaki zein pertsonak hartuko duten zeregin honen ardura: parte-hartzea ez da lortzen "parte hartu behar dela esanez".

**Parte hartzen dugu argi ikusi eta interesatzen zaigunean planteatzen den xedea. Horregatik elkarrekin amets egitea zein eskola mota nahi dugun (gure seme-alabentzat), parte-hartzearen prozesua hasteko garrantzitsua izan da, era batera zein bestera planteatu den ikastetxe guztietan.**

Egia bihurtzeko bideak prestatu beharko dira, seguru asko komunitatean dagoen egitura informala aprobetxatu, pertsona guztiak kontuan hartu eta sektore guztietara heltzen den sare bat eratzen hasi.

Kontuan izan behar dugu pertsonak talde txikietan asanblada edo bilera handietan baino gehiago hartzen dutela parte; azken aukera hau beharrezkoa izan arren, ez da bide bakarra. Hori dela eta, ikaskuntza komunitate osoa kezkatzen duten gaiei ekiteak sektore ezberdinetako talde eta batzorde mistoen bitartez, komunikazioa eta hausnarketa erraztuko du. Batzorde hauetan ikasleek, etxekoek eta gurasoek parte hartzen dute, elkarrekin. Berdinen arteko elkarrizketa izango dute, argudioak nabarmenduko diren elkarrizketa, eta horrela ikastetxeko organo ezberdinek beharrezkoak diren erabakiak hartzea ahalbidetuko da.

Eskola kontseiluak, parte-hartze egiturak maila ezberdinetan dinamizatzen badira, erabakitzeko benetako gune bihurtuko dira, eta ez dira ikastetxeko zuzendaritzaren proposamenak onartzera mugatuko. Osatzen duten pertsonen aurretiaz hausnartu eta eztabaidaturiko ideia

eta proposamenak eramango dituzte, ikuspuntu ezberdinak emango dira eta ikastetxea hobetzeko behar diren erabakiak hartzeko baldintza hobeetan egongo dira.

**Ikastetxeetako xede komuna, guztiok partitzen dugun jomuga, ikasketa eta elkarbizitzaren hobetzea da. Berriz diogu horretarako ezinbestekoa dela komunitate osoaren lana.**

**“Herri oso baten lana behar da ume bat hezteko”**

**Ikastetxe bakoitzak ikasle guztiek ikaste prozesuan arrakasta lortzeko bidean aurrera egin dezaten eman beharreko pausuak zehaztuko ditu.**

Bilbo, 2008ko ekaina  
**ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEA**  
[adarraerakundea@gmail.com](mailto:adarraerakundea@gmail.com)

